

8. Funtsezko jarduerak

Funtsezko baliabideak kontutan hartuta, Canvas ereduaren zortzigarren atal honetan gure enpresa ondo funtziona dezan egin behar ditugun gauzarik garrantzitsuenak aipatuko ditugu.

Jardueraren barruan sartzen direnak hauek izango ziren: Alde batetik , ekoizpena , arazoak konpontzea eta plataforma edo Sareko jarduerak.

Gure funtsezko jarduera umeen ongizatea, erosotasuna eta segurtasuna bermatzea da, umeengana iristeko.

Gainera umeen egunerokotasunetik ateratzeko hainbat ekintza desberdin proposatuko ditugu.

Aste bakoitzak, izen desberdin bat izango du (irrien astea, adibidez) beraz, aste horretako ekintzak, gai zehatz baten oinarrituko da.

Aste bakoitzeko ekintzen planifikazioa, medikuen laguntzarekin eta aholkuekin egingo dugu, haiek direlako umeen egoera gertutik ezagutzen dutenak. Medikuen aholkuak kontuan eduki behar ditugu, proposatutako ekintzak emaitza onuragarriak izateko eta momentu aproposetan egiteko.

Hona hemen ekintza bat, astean baten pailazo talde bat etorriko da ospitalera, pailazo horiek etortzen direnean helburu bezala izango dute umei irribarre bat ateratzea eta haien egunerokotasunetik aldentzea.

Pailazoak etortzen diren egunean irriaren eguna izango da.

Pailazoek antzerkiak antolatzeaz gain, beste ekintza batzuk ere antolatuko dituzte, adibidez, antzerkiak umeak egitea (orri batean egoera bat proposatzea eta beraiek antzerkia erabiliz, egoera islatzea), globoflexia (globoekin forma desberdinak egitea), papiroflexia (orriekin egiteko figurak), musika jarri (musikarekin, beraien emozioak edo sentimenduak isladatzeko edo elkar partekatu)

Garrantzitsua da, gure zerbitzuaren webgunea mantentzeko, sustatzeko eta hainbat arazoei aurre egiteko edo kudeatzeko eguneratuta izatea.